

ZURRIOLA MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAREN URTEKO PLANA-EUP

Zurriola Musika eta Dantza Eskola herri-oinarritutako proiektu pedagogikoa da, musika eta dantza euskaraz bizitzeko eta sortzeko gune bat. Haur, gazte eta helduen garapen integrala sustatzea dugu helburu, hezkuntza artistikoaren bidez.

Urteko plan honek eskolaren eguneroko jarduerari antolaketa, koherentzia eta norabidea ematen dio. Bertan jasotzen dira helburu pedagogikoak, diziplinen arteko loturak, jarduera nagusiak eta parte-hartze komunitarioa.

HELBURU NAGUSIAK

- Ikasleen garapen musikala eta koreografikoa bultzatzea.
- Euskararen erabilera eta transmisioa sustatzea.
- Gizartearekin eta herriko ekosistemarekin harremana sendotzea.
- Parte-hartze aktiboa bultzatzea eskolako ekitaldi eta prozesuetan.
- Ikasleen sormena, autonomia eta talde-lana lantzea.
- Familia eta irakasleen arteko komunikazioa eta lankidetzaren indartzea.

ANTOLAKETA PEDAGOGIKOA

Mailaka antolatuta:

- I.go maila Esperimentazioa, jolasaren bidez ikastea
- II.maila Oinarrizko gaitasun teknikoak eta kontzientzia artistikoa
- III.maila Adierazpen pertsonala eta diziplina arteko proiektuak, afizioaren garapena eta herri-ekintzetan parte-hartzea.

METODOLOGIA

Esperientzian oinarritutako ikaskuntza

- Talde txikietan lana
- Diziplina arteko loturak (musika+dantza, hitza+gorputza...)
- Ebaluazio jarraitua

Jarduerak eta Ekintzak

- Ohiko saioak eta ikasketa prozesuak
- Barne-audizioak, entsegu irekiak, elkartrukeak
- Ikastola, auzo eta hirko ospakizunetan parte-hartzea (kalejirak, festak, ospakizun bereziak)
- Urteko kontzertu eta emanaldi nagusiak
- Herri eszenatokietan ikasleen lanak erakustea

Ebaluazioa eta Jarraipena

- Irakasle-taldearen koordinazio bilerak
- Jardueraren dokumentazioa (argazkiak, bideoak, kronikak)
- Familiari zuzendutako komunikazio-kanalak
- Autonomia eta autoebaluazioa ikasleen artean sustatzea

Hizkuntza Irizpideak

- Euskara ikas-komunitate osoaren erabilera hizkuntza bezala
- Jarduera guztietan euskara hutsez
- Euskararen transmisioa belaunaldiarteko harremanetan
- Material propioen sorkuntza: euskarazko partiturak, testuak,

Zeharkako ardatzak

- **Berdintasuna:** genero ikuspegia eta errespetuzko harremanak
- **Inklusioa:** gaitasun eta behar guztietarako espazio egokitua
- **Ekologikoa:** ingurumenaren zaintza eta baliabideen erabilera arduratsua